

# KONTSEILU NAZIONALA

*aurrekontuak krisian*



**Bilbon, 2013ko apirilaren 20an**

# AURKIBIDEA

## 1. AURREKONTU-POLITIKA KRISI GARAIAN

## 2. AURREKONTUEN LUZAPENAK

## 3. ONDORIO BATZUK

- 3.1. Defizit publikoa betetzeko obsesioa
- 3.2. Zor publikoaren arazoa, tamaina eta sorrera
- 3.3. Kupoa eta kupoaren opakotasuna
- 3.4. Zerbitzu publikoak pribatizatu ordez, eskolaren eginkizun soziala balioetsi egin behar da.
- 3.5. Oso diskurtso ideologiko arriskutsua gastuaren eta emaitzen inguruan
- 3.6. Hezkuntzaren gastua aurrekontu orokorrekin alderatuta, Hezkuntza Sailaren pisua, diskurtsotik harago joan behar
- 3.7. Hezkuntzaren gastua ikasleko
- 3.8. BPGaren % 6 ezaguna hezkuntzara bideratzea
- 3.9. Gastua termino absolutuetan
- 3.10. Gastuaren egitura.
- 3.11. Enplegu suntsiketaren drama, plantilak izoztea
- 3.12. Langile publikoen erosteko ahalmenaren galera.
- 3.13. Funtzionamendu-gastuak

## 4. TAULAK

- 4.1. Euskal Erkidego Autonomia
- 4.2. Nafarroa

## 1. AURREKONTU-POLITIKA KRISI-GARAIAN

***2013ko apirilaren 20ko Bilboko Batzar Nazionalean “Presupuestos en época de crisis” (Aurrekontuak krisi-garaian) txostena aurkeztu genuen, txostena EAEko eta Nafarroako gobernuek krisialdi honetan izan dituzten aurrekontuen bilakaera alderatzeko egin zen. EAEn kasuan, 2009a, 2010a, 2011 eta 2012a analizatu ziren, eta 2013ko proiektuaren gaineko erreferentziarekin bukatu zen. Proiektuak ez du aurrera jarraituko, baina horrek ez ditu baliogabetzen txostenean aurreratzen diren ondorio gehienak. Nafarroan, azterlana 2010eko aurrekontuekin hasi eta 2012koekin bukatu da, azken urte horretako aurrekontuak 2013rako luzatu dira.***

***Kontseiluan bertan eta handik hona jasotako ekarpenak txertatu ditugu.***

## 2. AURREKONTUEN LUZAPENAK

Normalean, aurrekontuen luzapenek ez diete arazo handirik ematen gobernuei. Partida jakin batzuk gauzatu ahal izatearekin lotuta aurrekontu-ingeniaritza oso bat garatu behar izateaz edo aurreko urteko proiektuan jaso ez zen edozein ekimen (proiektu bat, beste obra bat...) gauzatzea Legebiltzarraren aurrean baliozkotu behar izateaz gain, Jaurlaritzak behar beste baliabide ditu (nagusiki konpromiso-kreditu ezagunak) ura bere errotara eramateko eta betetako aurrekontua interesatzen zaionera hurbiltzeko. Gainera, kontuetan opakotasuna areagotu egiten da, eta oposizioko alderdiek zailtasun handiagoak dituzte kontrola aplikatzeko.

Nafarroako Parlamentuak UPNk 2013rako aurkeztu zuen aurrekontu-proiektua baztertu ondoren, erkidego horretako gobernuak urtarrilean aurrekontua luzatzeko ildoak aurkeztu zituen, bi ardatzetan oinarrituz:

- 2013rako, huts egin duen aurrekontu-proiektuan proposatu zuen gastu-muga bera mantenduko du. 3.384.
- Aurreikusitako diru-bilketak behera egiten badu, murrizketa gehiago egingo dira kontuak doitzeko.

Bestalde, apirilaren 24an, Eusko Jaurlaritzak, bere proposamena aurrera ateratzeko behar besteko babesa ez zuela lortuko egiaztatu ondoren, 2013rako aurrekontu-proiektua bertan behera utzi eta 2012ko aurrekontuak 2013rako luzatu behar izan zituen. Badirudi argi dagoela Eusko Jaurlaritzak 2012an indarrean zegoen aurrekontua porrot egin zuen 2013ko proiektua baldintzatu zuten parametro ekonomikoetara bideratuko duela, gastuetako murrizketa handiarekin.

Bi egoeretan, Rajoyren gobernuak Europar izan duen negoziazioaren ondorioz 2013rako xede den defizit publikoa aldatu izanarekin lotuta dagoen eta kontuan izan behar den aldagai berri bat dago. Autonomia-erkidegoei dagokienez, hasieran % 0,7a planteatzen zen, baina azkeneko erabakia hartu ez bada ere, gutxienez % 1,2ra ezarriko da, eta, ondorioz, gastu-ahalmena areagotu egin da. EAEn kasuan, 285 milioi gehiago izango lirateke, eta aurreikusitako gastu murrizketatik kenduko lirateke (1.200 m.)

Gainera, EAEn diru-sarrerak areagotzeko beste aukera batzuk ari dira eztabaidatzen (PPrekin akordio bat egitea kupoaren menpeko gaien inguruan eta diru-sarrera subsidiarioak kontabilizatu ez diren zergen birkalkuluaren ondorioz), baina badirudi orain guztia ari dela bideratzen Urkulluk alderdiei (eta bereziki PSEri) proposatu dien egonkortasunerako esparru Akordioaren esparruan.

Gogoan izan behar da onartu den aurrekontua eta benetan gauzatu dena ez direla berdinak. Adibidez, EAEn dagokionez, 2013ko martxoaren bukaeran, azken aurrekontuen gastuen benetako betearazpen maila honakoa da:

	2009	2010	2011	2012	2013
<b>Onartua</b>	2.634	2.751	2.660	2.648	2.630
<b>Burutua</b>	2.610	2.559	2.726	2.429	1.618
<b>%</b>	%99,1	%93,0	%102,4	%91,7	%61,5

### 3. ONDORIO BATZUK

#### 3.1.- Defizit publikoa betetzeko obsesioa

Aurrekontu Egonkortasunerako eta Finantza Egonkortasunerako 2/2012 Lege Organikoak aurrekontuen egonkortasunerako oinarria ezartzen du eta administrazio eta enpresa publiko guztiei aplikatzen die. Hasieran, EBk espainiar Estaturako prestatu zuen egonkortasun planak defizit publikoa % 3an ezartzen zuen 2013rako, eta horren ondorioz, azken urteotan erakundeen *doikuntza-neurri* guztiak joan dira norabide horretan. Hala ere, murrizketa-politikaren emaitza gisa, atonia ekonomikoa gero eta altuagoa izan da, eta, ondorioz, etengabe murrizten dira erakundeen diru-bilketen aurreikuspenak. Badirudi politika horiek gizarte-desberdintasunak eta pobrezia eragiten dituztela eta, gainera, ez dira eraginkorrak kontu publikoen finantza-oreka hori lortzeko. Bada, 2012ko uztailean hasierako zifrak berrikusi ziren, eta % 4,5a ezarri zen 2012rako helburu gisa. Baina itxaropenik negatiboenak betez doaz ezinbestean, eta, 2012an, espainiar estatuak % 10,3ko defizita izan du (horren hiru puntu baino gehiago ez dira egiturazkoak; aitzitik, bankuentzako azken laguntzekin daude lotuta), itxaropen guztiak gaudituz. Ehuneko horren zati bat autonomia-erkidegoei zegokien (% 1,5eko muga zuten). Nafarroak % 1,34a eta EAEak % 1,39a izan zuten. Egoera berriak troika PPren gobernuarekin defizit publikoaren kontra borrokatzeko epean berriz negoziatzera bultzatu du, zehazki, 2013rako % 6,3a ezarri da, eta % 3aren helburua 2015era atzeratu da. Datu hori garrantzitsua da autonomia-erkidegoak ere ukitzen dituelako.

#### 3.2.- Zor publikoaren arazoa, tamaina eta sorrera

Ikuspegi progresista batetik, ezin dugu egon zor publikoa gizartearen beharrei erantzuteko baliabide gisa erabiltzearen kontra. Hori dela eta, konstituzio-erreforma onartezina iruditu zitzaigun erakundeen lehentasun gisa defizit publikoaren arloko helburuak betetzea beste edozein gairen gaineratik ezartzea. Zor publikoaren mailek kezka eragin ditzakete; izan ere, diru-bilketa behera egiten ari den testuinguru honetan diru-sarrerak areagotzeko beharrezko neurriak ez badira hartzen, baliteke horrek datozen urteetako aurrekontuak hipotekatzea. Eusko Jaurlaritzak, 2008aren bukaeran, 492 milioi euroko zor bizia zuen, Barne Produktu Gordinaren % 0,74, alegia, eta zifra horrek 2012an 6.213 milioi euroraino egin zuen gora Patxi Lópezekin, hau da, BPGaren % 9,4ra. 2009an, Lopezen gobernuak 17 milioi euro ordaindu zituen interesetan, 2010ean 64 milioi, 2011n 142 milioi, 2012an 250 milioi eta 2013an 302. Finantza-zama osoa kontuan hartuz (interesak gehi amortizazioak), 2009an 78 milioi ordaindu behar izatetik 2012an 424 milioi eta 2013an 600 milioi ordaindu behar izatera igaro gara. Gainera, zorraren mugaegunak 2014-2019 aldirako pilatzen dira, 2019an 700 milioira iritsiko diren zifrekin, eta 2020an 200 bat milioiko zifra maneigarriagora jaitziko dira. Nafarroako Gobernuak 2007an 971 milioi euroko zorra zuen, hau da, BPGaren % 3,5aren parekoa. Zor hau 2012an 2.903 milioira iritsi zen, hau da, autonomia-erkidego honen BPGaren % 15era. 2012an, 42 milioi ordaindu ziren interesetan pilatutako zorraren ondorioz, eta 2013an 92 milioi ordaindu beharko dira.

Zorraren sorrera horren kopurua beste interesetzen zaigu, eta, horren arabera, ordaindu behar dugun edo ez argitzea.

Urteetan ekonomia finantzarioak oso hazkunde handia izan zuen, 2008an eztanda egin arte, Estatu Batuetan lehen eta mundu osoan gero. Ondorioz argi geratu zen

banketxeek saldutako produktu asko ez zutela inoiz kobratuko: eraikitako etxe asko salezinak ziren, egindako azpiegitura ugarik ez zuten ezertarako balio, banketxeek bultzatuta zorretan sartu ziren familia askok ezin zuten hipoteka ordaindu... gobernuek bankuak salbatu beharrean aurkitu ziren, -horrela nagusiki pribatua zen zorra publiko bihurtu zen- eta horretarako dirua eskatu behar zuten, baina Europako Banku Zentralak ezin die gobernuei dirua utzi, baizik eta entitate finantzario pribatuei. Lehen mailegu hauek (Europako Banku Zentraletik beste bankuei) oso interes baxuarekin ematen dira, baina entitate horiek gobernuei dirua ematean askoz interes altuagoak eskatuko dizkiete -orain jatorriz pribatua zen zorra, publiko bihurtuta, biderkatu da.- Gauzak horrela, gobernuek aitzakia paregabea dute gastu soziala murrizteko eta langileek urteetan lortutakoa galarazteko, hau da, Europa eraikitzen helburu zutena gauzatzeko: neoliberalismo basatia garatzeko, zerbitzu publikoak suntsitzeko eta negozioak egiteko aukera eremu orotara zabaltzeko.

Zor *gorrotagarri edo ez-legitimo* kontzeptua XIX mendetik hona sarri erabili da, horrekin hiritarren interesen kontra harturiko zorrak deskribatu egiten da, baita zor horiek ez ordaintzeko eskubidea aldarrikatu. Hori baliatuz 1898an Kuban, 2001ean Argentinan, 2007an Ekuadorren eta 2004 Iraquen (diskurtsoa aldatuta, baina EEBBk ezarritako gobernuek!) zorra ordaintzeari uko egin zioten.

Argi dago une honetan dugun zorra ezin dugula ordaindu, eta zilegi, posible eta onuragarria dela ez ordaintzea. Istorioak, behintzat, hala dio.

### **3.3.- Kupoa eta kupoaren opakotasuna**

Euskadik 2013an estatuari 812 milioi euro ordaindu beharko dizkio kupo gisa (hau da, bere diru-sarreraren % 8,7, gutxi gorabehera), baina oraindik ez da adostu 2012-2016 aldirako kupoa zehazteko metodologia. Nafarroan, berriz, kuporako zenbatekoa 535 milioi eurokoa da 2013an.

Diru hori gizarte-errentagarritasunik gabeko edo urriko Estatuko egiturak eta erakundeak ordaintzeko erabiltzen da: armada, ikerketa militarra, ordena publikoko indarrak, monarkia, nazioarteko harreman batzuk, konkordatua Eliza Katolikoarekin... Gobernuen artean eztabaida sutsuak egon dira kupoaren inguruan, gaia arazo teknikoetatik haratago doa eta.

### **3.4.- Zerbitzu publikoak pribatizatu orde, eskolaren eginkizun soziala balioetsi egin behar da**

Euskal hezkuntza sistemaren % 50 pribatizatuta dago EAEn eta Nafarroan %36, aspalditik. Hau da, hezkuntza itunduaren mailak ez du parekorik ez estatuan, ez Europan. Derrigorrezkoak ez diren mailak ere ituntzen dira (batxilergoa eta LH), baita ikasleak sexuaren arabera banantzen dituzten ikastetxeak ere. Era berean, pribatizazio maila garrantzitsua dago hainbat hezkuntza zerbitzutan.

Era berean, oro har, hezkuntzako gastuak familiekin konpartitzea bultzatzeko joera finkatzen ari da, eta aurrekontu-eskuragarritasuna eskubidearen gainetik lehenesten da. Normalizat jotzen da familien ekarpenak areagotuz joatea jangelari, garraioari, 0-2 zikloari eta abarri dagokienez. Gainera, testuliburuak, eskolaz kanpoko jardueren eta kirolen, zaintza-gelen eta abarren kostuari ere aurre egin behar diote. Horren harira, murrizketak ate berriak irekitzen ari dira ko-ordainketa ildo horietan. Bada, beketan murrizketak egiten badira (hau da, prestazioak murrizten dira hartzaileen kopurua

mantentzen den arren), familien koordainketak gora egiten du. Joera kezkarria da etorkizunera begira.

Europar Batasunak, Batzorde Ekonomikoaren eta Sozialaren bitartez, hezkuntza oinarriko eskubidetzat jotzen du, eta pobrezia eta gizartetik baztertuta geratzearen kontrako instrumentu bat dela onartzen du. Hori bat dator berdintasunaren, gizarte-kohesioaren eta jatorrien desberdintasunak konpentsatzearen arloan eskolak duen gizarte-eginkizunaren defentsarekin. Eta, horrekin lotuta, gure erakundeei exijitzen diegu arlo ekonomikoan zalantzarik gabeko konpromisoa har dezatela aurrekontu-politikaren bitartez, eta eskolan egiten den lanaren emaitzak ez ditzatela sinplifikatu maila akademiko hutsetara.

### **3.5.- Oso diskurtso ideologiko arriskutsua gastuaren eta emaitzen inguruan**

Estatuko azken estatistikak oso txarrak dira eskolako emaitzei dagokienez, eta eskola-porrotak hezkuntzako gastuaren % 60 hartzen duela esaten dute. ELGAren PISA programaren azken emaitzen argitalpenak iritzi publikoaren eskuetan utzi zuen hezkuntza-sistemaren emaitzen baldintzatzaileen gaineko eztabaida. Testuinguru horretan, eta beharbada hezkuntzaren arloko gastuan aplikatu diren murrizketapolitikak justifikatzeko, eskuin politikoa eta mediatikoa diskurtso ideologiko berri bat sustatzen ari da, hau da, hezkuntzan egiten den gastua ez dela hezkuntzako emaitza txarrak arintzeko baldintzatzailea defendatzen dute. Eskola-orduak areagotzea Europako normaltasunarekin bat datorrela esaten dute, irakasleen hasierako soldata ELGAren batez bestekoa baino altuagoa dela, nazioarteko azterketek erakusten dutela ikasgelan ikasle gehiago izateak ez duela eraginik eskolaren errendimenduan baldin eta ikasleak ez badira 40ra hurbiltzen, irakasle bakoitzeko ikasle-kopurua ELGAko batez bestekoa baino baxuagoa dela, eta finantzaketa inguruko herrialdeetako baino altuagoa dela. Irakasleek motibatuta egon behar dutela eta profesionalak izan behar dutela esaten dute, eta ahaleginaren kultura bultzatu behar dela. Agintariek beren asmoak legitimatuta ikusi dituzte hezkuntzako gastua areagotzea dakarten politikei dagokienez. Guk, aldiz, hau diogu:

- Hezkuntzako gastua nahitaezko baldintza da, baina ez nahikoa PISA txostenean batez bestekoa baino emaitza altuagoak lortzeko. Gastu-maila horiek ez dira nahikoa ez badira baldintza osagarri batzuk betetzen.
- Emaitza akademikoen gaineko obsesioaren aurrean, hezkuntzako gastua berdintasuna eta gizarte-kohesioa sustatzen dituen instrumentu gisa defendatu behar da. Hezkuntzako gastuak beharbada ez ditu PISA txostenean emaitza hobeak ekartzen, baina bai gizartearekin lotutako alderdiekin balora daitezkeen emaitzak. Nolanahi ere, 2011an eskola-uzte goiztiarra (16 urte betetzean graduatzen ez diren ikasleak) Nafarroan % 12koa zen soilik eta EAEn %12,2koa. Hau da, tasa hau Europar Batasunean dagoena baino baxuagoa da eta oso urrun dago Espainiar estatuko batez bestetik , %26'5, eta are gehiago beste erkidegoen batez bestetik , adibidez Andaluzia % 32.
- Hezkuntzako gastua gizarte-politiketan aurrezteko bide gisa. Hezkuntza politikan aurrezten dena gero gizarte-politiketan, segurtasunean... gastatu beharko da, soberan ziurrenik.

Instituzioen inplikazio-maila neurtzeko hainbat modu daude. Sarrien erabiliak BPGaren ehunekoa eta ikasle bakoitzeko gastua dira, baina gastu absolutua eta aurrekontu orokorrekin alderatuta ere aztertuko ditugu.

### **3.6.- Hezkuntzaren gastua aurrekontu orokorrekin alderatuta, Hezkuntza Sailaren pisua, diskurtsotik harago joan behar**

Gobernu guztiek aho batez esaten dute hezkuntza garrantzitsua dela; baina, hala ere, datuak ikusita zalantzan jartzen dugu hitzok finantzaketarekin lotutako konpromisoak ekarriko ote dituzten.

Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuen barruan, hezkuntzak 2002an aurrekontuaren % 27,6 hartzen zuen osotara. Hamar urte geroago, 2012an, % 25a gutxigatik gainditzen du. % 25 hori 2010ean bakarrik gainditu zen (% 26,7) eta porrot egin zuen 2013ko aurrekontuan. Azken kasu horretan % 28ra iritsiko zatekeen, nahiz eta, paradoxikoki, aurrekontuak hezkuntzan murrizketak barne hartzen zituen. Hori gastuan murrizketa ikaragarria (1.200 milioi) aurreikusten zelako gertatu zen.

Nafarroan, hezkuntzara bideratu diren aurrekontu-ehunekoek ez dute sekula gainditu % 15a; are gehiago, espainiar estatuan aurrekontu osotik ehunekorik baxuena bideratzen duen autonomia-erkidegoa da.

Eusko Jaurlaritzaren kasuan, azken hiru gobernuen jokabidea (Ibarretxe, Patxi López eta Iñigo Urkullu) eta izan dituzten sailburuek egin duten kudeaketa-lana (Tontxu Campos 2006tik 2009ra; Isabel Celáa 2009tik 2012ra eta Cristina Uriarte 2012tik aurrera) analizatuz, hainbat ondorio atera ditzakegu:

- Krisi ekonomikoa baino lehenagoko urteetan (EAEn BPGa modu nabarian areagotu zen urte haietan), hezkuntzako gastu publikoa sortutako aberastasuna baino gutxiago hazi zen, eta Hezkuntza Sailaren aurrekontuaren igoera beti izan zen aurrekontu orokorrarena baino txikiagoa. 2006an, 2007an eta 2008an, aurrekontua % 37,5 areagotu zen (Osakidetza % 39ra iritsi zen), baina hezkuntzaren hazkundera orokorren hazkunderaren 10 puntu azpitik geratu zen.
- 2009an legealdian lehenengoz, hezkuntzan aurrekontu orokorraren igoeraren ehunekoa gainditu zen. Hori aurrekontuak gora egin ez zuen testuinguru batean gertatu zen, hau da, hazkuntza hura bat-batean gelditu zenean, eta, beraz, espero zitekeen beherakada neurri batean arindu zen.
- Krisia nagusi izan den gainerako urteetan, gastu orokorretan murrizketa ikaragarriak egin dituzte urtez urte, hezkuntzan egin dituztenak baino zorrotzagoak. Hori dela eta, denbora tarte horretan, hezkuntza Sailaren pisuak gora egin du: hezkuntzarako aurrekontu mesedegarriena gauzatu ez den 2013koa litzateke, (10,1 puntu positiboko diferentzialarekin), gero 2010a (+6) eta 2012a (+0,4). Ekitaldiko txarrena 2011koa izan zen (-5,6 puntu).

### **3.7.- Hezkuntzaren gastua ikasleko**

Kalkulu hau egiteak zailtasun teknikoak dakartza (aurrekontuak xeheki aztertu behar dira, partidak bereiziz eta zalantzazko gaiak argituz,) baina interesantea dela uste dugu, ikasleen kopuruaren aldagaia kontuan hartzen delako. BPG bera gastatu arren, bi herrialdek, arrazoi demografikoen ondorioz eskola-ikasleen

ehuneko desberdinak izan ditzakete, eta, ondorioz, *per capita* gastua desberdina izango da. EAEn kasuan:

	2009	2013	2009-13
<b><i>Ikasle kopurua</i></b>	356,186	383,477	<b>%7,60</b>
<b><i>Ikasleko gastua</i></b>	4.561	3.833	<b>-%15,96</b>

***Geuk egina: Sailaren 2009rako aurrekontutik kendu egin da Unibertsitate eta Ikerketa programei dagokiena, irakaskuntza pribaturako diru-laguntzak eta beka unibertsitarioak. 2013an, gainera, gazteria, kultura eta hizkuntza-normalizazioko programei dagokien guztia kendu da.***

- Nafarroaren kasuan:

	2010	2012	2010-12
<b><i>Ikasle kopurua</i></b>	94879	101147	<b>8%</b>
<b><i>Ikasleko gastua</i></b>	6.227	4.862	<b>-22%</b>

***Gastua kalkulatzeko, gastu osoa Unibertsitatekoak ez diren Irakaskuntzetako ikasleria osoaren artean zatitu da. Sailaren Aurrekontutik unibertsitateko irakaskuntzari dagozkion partidak kendu dira, baita 0-3 zikloari eta Euskarabideari dagozkionak ere.***

### **3. 8.- BPGaren % 6 ezaguna hezkuntzara bideratzea.**

Atal honetan hezkuntzako gastu publiko osoa (korrontea eta kapitalarena), urte jakin bateko Barne Produktu Gordinarean (BPG) ehuneko gisa adierazita aztertuko dugu. Jaurlaritzak hezkuntza-erakundeetan (publikoetan nahiz pribatuetan), hezkuntzako administrazioan eta erakunde pribatuetarako diru-laguntza edo transferentzietan (ikasleak/etxeak eta beste erakunde pribatu batzuk) egin duen gastua kontuan hartuko dugu.

Erakusle ekonomiko gisa BPG erabiltzea gero eta gehiago kritikatzeko ari da, arrazoi batzuegatik: tarte jakin batean gaineratu den aberastasuna neurtzen du, baina ez aurretik existitzen zena, beraz, egoera katastrofikoetan indize honek gora egin dezake, (Indonesian 2005ean egin zuen bezala, tsunami eta guzti); jardun ekonomikoaren ondorio ekologiko eta sozialak ez ditu kontuan hartzen; eta ez du islatzen soldatapekoa ez den lana (gehien bat emakumeek betetzen dituzten zaintza lanak kasu,) ezta ekonomia ezkutua ere.

Hala ere, BPG oso erreferentzia hedatua da, Lisboako 2000ko Akordioek jada 2010erako hezkuntzara BPGren % 6 bideratzeko gomendioa eman zuen, eta EBk 2002an bat etorri zen. STEE-EILASen gure egin dugu %6ko aldarrikapena, European batez besteko hezkuntzarako gastu publikoa baxuagoa den arren (EB27n 2009an % 5,41ekoa zen), eredugarritzat hartu beharko genituzkeen herrialde ugari askoz ehuneko altuagoak dituzte (Danimarka, % 8,72).

Espaniar estatuak 2010ean BPGren % 4,9a bideratu zuen, gure gobernuek baino gehiago. (Hala ere, bere BPGa EAEn baino % 37 baxuagoa zenez, ikasleko gehiago inbertitu genuen.)

EAEn 2008an BPGren %3,7 gastatu zen hezkuntzan, eta 2009an %4,2; garai haietan igoera handiena ikusi genuen BPGrekiko, 2007tik 2010era %3,4tik %4,3ra pasatu ginen, ezagutu dugun portzentaje altuena izan zelarik. 2011tik aurrera behera egin dugu berriro, %4 inguruan gabiltza orain.



Nafarroan Europako batez bestekotik ez ezik espainiar estatuak bideratzen duen batez bestekotik urrun gaude, oso azpitik. Nafarroan hezkuntzara bideratzen zen BPGaren ehunekoa 0,4 puntu areagotu zen 2005etik 2010era, eta % 3,1etik % 3,5era igaro zen, baina gaur egun hasierako mailara itzuli da.

Aurreko arrazoen ondorioz, legitimoa da desfase horrekin lotutako egiturako defizita salatzea, hau da, % 6 horretara iristeko egin beharko litzatekeen gastuaren igoera salatzea. EAEn kasuan, 1.219 milioi euro gehitu beharko litzazkioke 2013ko aurrekontu proiektuan jaso ziren 2.630 milioiei. Nafarroan aurrekontua ia bikoiztu egin beharko litzateke, eta 526 milioi gehitu beharko litzazkieke aurrekontuan jaso diren 563 milioiei.

### **3. 9.- Gastua termino absolutuetan**

Nafarroan, krisia baino lehenagoko urteetan hezkuntzako inbertsioa pixkanaka areagotu zen, eta 2010ean iritsi zen bere gehienekora, hau da, 2005ean 479 milioikoa izatetik 2010ean 662 milioikoa izatera igaro zen. 2010etik 2012ra, datu absolututan, hezkuntzako inbertsioak % 15 egin zuen behera, eta % 22 egin zuen behera KPlaren igoera kontuan hartzen badugu.

EAEn ere hezkuntzaren aurrekontu altuena 2010ean izan zen, baina ez zen gauzatu ekainean %5 jaitsi zietelako lan sariak funtzionarioei. Handik hona aurrekontuek behera egin dute etengabe, 2009koen azpitik egon arte. 2010tik hona %4,4 jaitsi dira.

### **3.10.- Gastuaren egitura.**

EAEn nahiz Nafarroan, argi dago Saitetako gastuaren egitura zaharkituta dagoela. Langilieriarekin lotutako gastuek eta transferentziek gero eta gehiago hartzen dute, baita soldatak murriztu (4 urtez jarraian izoztu dira lehenago murriztu ziren soldatak), langilieriak murriztu edo izoztu (eta ordezkapenak gutxitu) eta diru-laguntza guztiak beherantz doitu badira ere. Datozen ekitaldietan ezohiko partidak jaso beharko dira galdu den erosahalmena berreskuratzeko edo langilieriak krisia hasi baino lehenagoko mailalara iristeko osatu beharko dira.

Langilieriarekin lotutako gastuak, berez, Sailaren aurrekontua hipotekatzen duten gastu arrunt saihestezinak dira. Guztira duen pisua, EAEn, 2009ko gastuaren % 84,7koa izatetik 2013ko proiektuan % 90,4koa izatera igaro da, eta Nafarroan 2010ean % 85,7koa izatetik 2012an % 97koa izatera igaro da. Egungo aurrekontu-egiturarekin, ezinezkoa dirudi hezkuntzako gastuan murrizketak egitea garrantzitsua den ezer ukitu gabe. Ikastetxeak itota daude, langilieriak doitu eta lan-zama handiarekin, inbertsiorik gabe eta prestakuntza eta bekak murriztu egin dira.

### **3.11.- Enplegu suntsiketaren drama, plantilak izoztea**

Irakasleei zuzeneko irakaskuntzaren ordutegia luzatzeak eta ratioak igotzeak Nafarroako hezkuntza publikoan 800 bat lanpostu galtzea ekarri du. EAEn zein Nafarroan ordezkapenatarako partida murrizteak ondorio bikoitza du. Egia da ikastetxeetako lankideen lan-zama handitzea dakarrela (programatzeko, zuzentzeko, proiektuetan parte hartzeko... orduen murrizketarekin), baina larriena da lan publikoa suntsitzea dakarrela, gazteen artean, batik bat. Oso zaila da suntsitu diren lanpostuen kopurua zehaztea, baina ezin da ukatu hori gertatu dela.

Ikastetxeetako langileen bilakaerari dagokionez, alderdi batzuk oso argi daude:

- Azken urteetan lan-eskaintza publikoak eginez behin-behineko lanaren zati bat finkatu zuten, baina kontuan hartu behar da, era berean, erretiroaren arazoa. Langileriaren batz besteko adina oso altua da, eta datozen urteotan pertsona asko erretiratu beharko lirateke. Langileriak berritzea zaildu egin da hainbat arrazoiren ondorioz: LOGSEko xedapen batek 60 urterekin erretiratzeko aukera ematen zuen, baina xedapen hori ez da luzatu, Dekretu batek lan-eskaintza gehiago egitea galarazten du, pentsioen azken erreformak erretiro partziala eta aurreratua hartzeko adina atzeratzen du...
- EAEn matrikulek gora egin dute, baina langile kopuruek oso igoera eskasa izan dute aldi horretan (ikus taulak); beraz, ikasgelak inoiz baino beteago daude, nahiz eta Euskadin, Andaluzian eta Asturiasen bezala, ikasgelako ikasleen ratioaren igoera ez den aplikatu. Talde bakoitzeko ikasle kopuruaren bilakaeraren estatistikak egoeraren isla dira, nahiz eta estatistika orokorraren barruan egoera anitz izan:

<b>IKASTURTEA</b>	<b>2009-2010</b>	<b>2012-2013</b>
<i>HAUR HEZKUNTZA 2.zikloa</i>	18,17	18,89
<i>LEHEN HEZKUNTZA</i>	18,28	19,08
<i>DBH 1. zikloa</i>	20,01	21,15
<i>DBH 2. zikloa</i>	16,5	18,34
<i>BATXILERGOA</i>	31,62	33,57

### ***Geuk egina Sailaren datuekin***

#### **3.12.- Langile publikoen erosteko ahalmenaren galera.**

Herri-administrazio guztietako funtzionarioen edo langileen soldatak murriztu egin ziren 2010eko ekainean, Zapateroren murrizketa dekretua aplikatu zenean. Harrezkero, 2011ko, 2012ko eta 2013ko aurrekontuek ere jada murriztutako taula horietako soldatak izoztea ezarri dute, inflazioak etengabe aurrera egin duen arren (2009tik % 9,5). 2012an, gainera, Abenduko aparteko ordainsaria kentzea erabaki zen, baina erabaki hori ezkutatu egin da 2013koak aurreratuz, eta ez dira ebatzi Eusko Jurlaritzak Konstituzio auzitegian aurkeztu zuen errekurtsioa edo Nafarroan aurkeztutako errekurtsioak. Ikastetxe itunduetako langileak ere ukitzen dituzten neurri horien guztien ondorioz, erosahalmenak % 20 egin du behera aldi horretan.

#### **3.13.- Funtzionamendu-gastuak.**

Funtzionamendu-gastuen murrizketaz gain, EAeko ikastetxeek aurten bigarren murrizketa bat jasan dute, dirua jaso behar zutenean, une hartan ikastetxeek zuten

efektiboaren portzentajea deskontatu zaio ingresatu beharreko kantitateari. Hau guztiz bidegabea da, eta, gainera, ondorio larriak izan ditzake gastu horiek kudeatzerakoan. Edozein momentutan aurreikusitako dotazio ekonomikoa galdu ahal izateak egitasmo ekonomikoa egiteko aukera galarazten die ikastetxeei, eta B kontabilitatea sustatzen du.

Nafarroan Hezkuntza Sailak ikastetxe publikoen funtzionamendu-gastuetan murrizketa ikaragarria ezartzeaz gain (% 30etik gorakoa 2010aren eta 2012aren artean), partiden ordainketa sistematikoki atzeratu du, eta, horrela, ikastetxeen funtzionamendua kolapsatu du.

2013ko ekainaren 17an

## 4. TAULAK

### 4.1. EAE

#### 1.-AURREKONTUAK EAE milioi eurotan

HAZKUNDEA	2009	2010	2011	2012	2013	2009-13
<i>Orokorra (1)</i>	10.487	10.315	10.549	10.449	9.316	<b>-%9,7</b>
<i>Urteko igoera %</i>	5,5	-1,6	2,3	-0,9	-10,8	
<i>Hezkuntza Saila (2)</i>	2.634	2.751	2.670	2.645	2.630	<b>3,3</b>
<i>Urteko igoera %</i>	7,6	8,1	-2,9	-0,9	-0,6	
<i>Pisua (3)</i>	%25,1	%26,7	%25,2	%25,3	%28,2	
<i>Bilakaera (4)</i>	2,1	9,7	-0,6	0	10,2	

(1).-Aurrekontu orokorra

(2).-Hezkuntza Sailaren aurrekontua

(3).-Hezkuntza Saila, orokorrarekiko

(4).-Hezkuntzaren bilakaera orokorrarekiko

#### 2.-HEZKUNTZA SAILAREN AURREKONTUAK

	2009	2010	2011	2012	2013	2009-13
<i>Onartua</i>	2.634	2.751	2.670	2.645	2.630(1)	-0,2
<i>Inflazioarekin</i>	2.607	2.660	2.616	2.573	2.590(2)	-0,7
<i>Igoera erreala (3)</i>	7,3	2,0	-1,7	-1,6	0,7	
<i>Burutua (4)</i>	2.610	2.559	2.726	2.429		
<i>%</i>	%102,5	%93,0	%102,1	%91,8		

(1)Azkenean ez zen onartu

(2)Estimatu: %1,5

(3) Inflazioa kontutan izanda

(4) 2013ko martxora arteko datuekin

#### 3.-HEZKUNTZAREN GASTUAK BARNE PRODUKTU GORDINEKIKO

BPG	2009	2010	2011	2012	2013 (4)
<i>EAE (1)</i>	4,2	4,3	4	4,1	4,1
<i>EAE (2)</i>	4,1	4,1	3,9	3,9	4
<i>EAE (3)</i>	4,1	4	4,1	3,7	
<i>Nafarroa</i>	3,6	3,6	3,2	3,1	2,7
<i>Espainia</i>	5,0	4,9	4,6		

(1) Onartutako aurrekontuen arabera

(2) Onartutako aurrekontuak inflazioarekin

(3) Burututako aurrekontuen arabera (2013ko martxoko datuekin)

(4) Datu estimatuak

#### 4.- HEZKUNTZAREN GASTUA IKASLEKO

Ikasleko gastua	2009	2013	2009-13
<i>Ikasle kopurua</i>	356,19	383,48	<b>%7,60</b>
<i>Gastua ikasleko</i>	4561	3833	<b>-%16</b>

## 5.-KAPITULUEN GARAPENA

	2009	2013	2009-13
Langile gastuak	1.125.264	1.185.606	5,4
Funtzionamendu-gastuak	162.265	140.367	-13,5
Finantza gastuak	0	31,6	
Transferentzia arruntak	1.131.593	1.191.827	5,3
Inbertsio errealak	132.341	43.347	-67,2
Kapital-transferentziak	80.025	67.128	-16,1
Langileen maileguak	3.410	2.000	-41,3
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.634.897</b>	<b>2.630.443</b>	<b>-0,2</b>

## 6.-KAPITULUEN PISUA

	2009	2013	2009-13
Langile gastuak	42,71	45,07	2,3
Funtzionamendu-gastuak	6,16	5,34	-0,8
Finantza gastuak	0,00	0,00	0,00
Transferentzia arruntak	42,95	45,31	2,3
Inbertsio errealak	5,02	1,65	-3,3
Kapital-transferentziak	3,04	2,55	-0,4
Langileen maileguak	0,13	0,08	-0,05
<b>GUZTIRA</b>	<b>100,00</b>	<b>100,00</b>	<b>0,00</b>

## 7.-PERTSONAL GASTUAK

Pertsonal-Gastuak	2009	2013	2009-13
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.125.263</b>	<b>1.185.606</b>	<b>5,4</b>
<i>Pisua</i>	<b>% 42,7</b>	<b>% 45,1</b>	
Funtzionarioen ordainsariak	798.481	840.431	5,3
Ordezkoen ordainsariak	74.141	61.576	-16,9
Lan-legepeko finkoen ordainsariak	55.918	67.804	21,3
Lan-legepekoen ordezkoen ordain.	2.724	8.146	199,1
Kotizazio sozialak	141.988	184.769	30,1
ITZARRI	22.469	0	-100,0

## 8.-FUNTZIONARIOEN ORDEZKAPENAK

	2009	2013	2009-13
<i>LH</i>	21.141.912	19.023.864	-10
<i>BH</i>	24.286.687	20.990.046	-13,6
<i>Araubide Bereziak</i>	1.666.512	160.000	-90,4
<i>Berritzea</i>	2.056.265	3.462.282	68,4
<i>Etengabeko Hezkuntza</i>	1.557.274	1.500.000	-3,6
<i>Euskalduntzea</i>	23.432.655	15.000.000	-35,9
<b>GUZTIRA</b>	<b>20.051</b>	<b>1.945</b>	<b>-53,6</b>

## 9.-FUNTZIONAMENDU- GASTUAK

	2009	2013	2009-13
Garbiketa HH-LH	594	390	-34,4
PROA HH-LH	0	483	
Ibiltaritza-gastuak HH-LH	0	173.925	
Garbiketa BH	15.236	16.922	11,1
Ekipo informatikoen manten. BH	2.128	1.183	-44,4
PROA BH	0	458	
Obra txikiak BH	2.360	380	-83,9

## 10.-DIRULAGUNTZAK OHIKO GASTUETARAKO

	2009	2013	2009-13
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.131.593</b>	<b>1.191.826</b>	<b>5,3</b>
<i>Pisua</i>	<b>42,8%</b>	<b>45,3%</b>	
Hezkuntzako Itunak	547.354	557.300	1,8
Haurreskolak	66.187	40.494	-38,8
Haur Eskola Pribatuak	31.334	21.636	-30,9
Hezkuntza Bereziko Espezialistak	8.904	10.304	15,7
Laudioko Eskolarekin Hitzarmena	3.498	3.033	-13,3
Musikene	10.575	8.202	-22,4
Bekak	60.881	29.177	-52,1
EHU-UPV	340.720	291.166	-14,5
IRALE PRI	5.446	3.300	-39,4
IKERBASQUE		8.789	

## 11.-INBERTSIOAK IKASTETXE PUBLIKOETAN

	2009	2013	2009-13
<b>GUZTIRA</b>	<b>132.341</b>	<b>43.347</b>	<b>-67,2</b>
<i>Pisua</i>	<b>4,6%</b>	<b>1,6%</b>	
Egitura eta laguntza	2.352	42	-98,2
Haur eta Lehen Hezkuntza	66.187	21.091	-68,1
Bigarren Hezkuntza/Lanbide Hezike.	51.743	16.591	-67,9
Araubide Bereziko Irakaskuntzak	10.840	4.171	-61,5
Hezkun. Berristea/irakasleak pres.	523	92	-82,5
Etengabeko irakaskuntza eta HH	508	100	-80,3
Euskalduntzea	99	89	-10,0
Ikerketa	90	60	-33,3

## 12.-HAINBAT INBERTSIO

	2009	2013	2009-13
Ikastetxeetako Obrak HH-LH	58.062,70	17.708,40	-69,5
Ikastetxeetako Obrak BH	32.525,20	12.260,10	-62,3
Ikastetxeetarako ekipamendua	15.775,60	2.644,70	-83,2
Ekipamendu informatikoa	2.561,60	2.417,90	-5,6

### 13.-PROGRAMEN GARAPENA

	2009	2013	2009-13
Hezkuntza Egitura eta Laguntza	38.143	33.843	-11,3
Haur eta Lehen Hezkuntza	900.248	871.895	-3,1
Bigarren Hezkuntz./ Lanbide Heziketa	939.779	887.518	-5,6
Unibertsitateko Irakaskuntza	353.718	301.781	-14,6
Araubide Bereziko Irakaskuntzak	66.905	47.377	-29,2
Hezk. Berritzea/ Irak. Eteng. Prestak.	49.063	41.406	-15,6
Etengabeko Ikask./ Helduen Hezkuntz	48.156	36.072	-25,1
Hezkuntza Sustapena	148.305	119.021	-19,7
Hezkuntza Sistemaren Euskalduntzea	53.370	41.760	-21,7
Ikerketa	27.187	33.161	21,9
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.634.898</b>	<b>2.413.834</b>	<b>-15,6</b>

### 14.-PROGRAMEN PISUA

	2009	2013	2009-13
Hezkuntza Egitura eta Laguntza	1,45	1,40	-0,05
Haur eta Lehen Hezkuntza	38,47	36,12	-2,3
Bigarren Hezkuntza/Lanbide Heziketa	34,79	36,77	2
Unibertsitateko Irakaskuntza	12,89	12,50	-0,4
Araubide Bereziko Irakaskuntzak	2,26	1,96	-0,3
Hezk. Berritzea/ Irak. Etengabe Prestak.	1,45	1,72	0,2
Etengabeko Ikask. eta Helduen Hezkun.	1,73	1,49	-0,2
Hezkuntza Sustapena	3,86	4,93	1
Hezkuntza Sistemaren Euskalduntzea	1,16	1,73	0,5
Ikerketa	1,52	1,37	-0,1
Berriztatzerako fondoa	0,41	0,00	-0,4
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100,00</b>	<b>0,00</b>

### 15.-PRESTAKUNTZA

	2009	2013	2009-13
Prestakuntza Planaren gastuak	1.395.656	484.509	-65,3
Proiektuak ikastetxe publikoetan	1.167.942	657.050	-43,7
HMH ikastetxe publikoetan	0	164.320	
Prestakuntza plana-entresa pribatuak	116.898	390.000	233,6
Hizkuntzen prestakuntza plana	0	140.500	
Pretakuntzarako poltsak	184.733	50.500	-72,7
Banakako Laguntzak	560.860	0	-100,0
Prestakuntza Plana	845.012	72.000	-91,5
Ikastetxe pribatuetan proiektuak	342.490	93.020	-72,8
Prestakuntza Plana-PRI	981.195	50.000	-94,9
HMH ikastetxe pribatuetan	0	337.312	
Hizkuntzak ikasteko plana itunpeko sarean	500.000	230.000	-54,0
Ijito ikasleentzako jarduera proiektuak	729.400	290.593	-60,2
<b>GUZTIRA</b>	<b>6.824.186</b>	<b>2.959.804</b>	<b>-56,6</b>

### 16.-EUSKALDUNTZEA

	2009	2013	2009-13
Ordezkapenak PUB	23.432.655	15.000.000	-36,0
EIMA I	1.260.000	464.750	-63,1
EIMA 2.0	360.500	162.500	-54,9
EIMA III	778.895	0	
EIMA IV	4.180.000	119.915	-97,1
IRALEko ordezpapenak PRI	5.446.000	2.500.000	-54,1
Euskaltegiei dirulaguntzak	1.128.000	800.000	-29,1
Tinko	154.000	0	
Euskal Idazleen Elkartea	185.000	78.000	-57,8
NOLEGA	320.000	150.000	-53,1
Normalizazio Proiektuak PRI	3.080.000	1.000.000	-67,5
<b>GUZTIA</b>	<b>40.325.050</b>	<b>20.275.165</b>	<b>-49,7</b>

### 18.-SUSTAPENA

	2.009	2.013	2009-13
Eskola garraioa eta laguntzaileak	24.523.225	25.000.000	1,9
Eskola Jantokiak	32.768.060	34.000.000	3,8
Beka ez unibertsitarioak	43.478.017	20.915.000	-51,9
Laguntzak garraioa behar berezikoakt	1.750.000	2.127.000	21,5
Atzerriko hizkuntzak ikasteko beka BH	1.648.500	802.274	-51,3
Guraso Elkartetarako diru-laguntzak	961.867	850.000	-11,6
Kooperatibetarako diru-laguntzak	530.282	33.000	-93,8
Unibertsitate-Bekak	17.403.178	8.262.193	-52,5
Eskola-emaizten beka	0	0	
Atzerrian hizkuntzak-ikastaroetarako beka	720.000	0	-100,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>123.783.129</b>	<b>91.989.467</b>	<b>-25,6</b>

### 19.-UNIBERTSITATEA

	2009	2013	2009-13
<b>EHU-UPV</b>			
<i>Gizarte Kontseilua</i>	1.077.095	215.402	-80,0
<i>Ekarpen arrunta</i>	263.102.260	238.446.000	-9,4
<i>Programa-kontratuak</i>	4.180.000	6.776.790	62,1
<i>Osagarriak</i>	18.000.000	16.143.389	-10,3
<i>Seguritatea</i>	715.960	0	-100,0
<i>Lanpostu handitzea</i>	8.010.424	0	-100,0
<i>Irakasleen dekretua</i>	1.275.400	0	-100,0
<i>Azpiegituraretarako, arrunta</i>	12.000.000	3.000.000	-75,0
<i>Azpiegituren programa</i>	22.000.000	7.971.469	-63,8
<i>Programa-kontratuak</i>	10.359.000	18.613.106	79,7
<b>GUZTIRA EHU-UPV</b>	<b>340.720.139</b>	<b>291.166.156</b>	<b>-14,5</b>
<b>DEUSTO</b>			
<i>Programa-kontratuak-Uni.Plana</i>	2.197.214	1.854.209	-15,6
<i>Programa-kontratuak-Ikerketa</i>	952.786	2.729.282	186,5
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.150.000</b>	<b>4.583.491</b>	<b>45,5</b>
<b>MONDRAGON</b>			
<i>Programa-kontratuak-Uni.Plana</i>	2.929.500	1.972.825	-32,7



<i>Programa-kontratuak-lkerketa</i>	220.500	2.224.675	<b>908,9</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.150.000</b>	<b>4.197.500</b>	<b>33,3</b>
<b>GUZTIA OSOA</b>	<b>343.870.160</b>	<b>295.749.668</b>	<b>-13,99</b>

## 20.-IRAKASKUNTZA PRIBATUA

	<b>2009</b>	<b>2013</b>	<b>2009-13</b>
<b>HEZKUNTZ ITUNAK</b>	547.354.000	557.300.000	1,82
<b>JUBILAZIOAK</b>	2.143.000	1.889.420	-11,83
<b>FINANCIACIÓN CICLO 0-3</b>	31.334.700	21.636.178	-30,95
<b>ESPECIALISTAS DE APOYO EDUCATIVO</b>	8.904.413	10.304.106	15,72
<b>SUSTITUCIONES DE IRALE</b>	5.446.000	2.500.000	-54,09
<b>NORMALIZACIÓN LINGÜÍSTICA</b>	3.080.000	1.200.000	-61,04
<b>LIBERADOS SINDICALES</b>	898.040	934.020	4,01
<b>CENTROS EN CRISIS</b>	725.898	0	-100,00
<b>SUB. EQUIPAMIENTO CENTROS DE FP</b>	3.178.990	69.000	-97,83
<b>SUBVENCIÓN OBRAS CENTROS DE FP</b>	350.025	0	-100,00
<b>PLAN FORMACIÓN PROFESORES PRIV.</b>	981.261	0	-100,00
<b>PROYECTOS FORMACIÓN-INNOVAC.</b>	342.490	93.020	-72,84
<b>APOYO ALUMN. INMIGRANTE</b>	3.230.200	1.700.000	-47,37
<b>SUB. INVERSIÓN EN COOPERATIVAS</b>	2.974.479	2.409.635	-18,99
<b>MARCO EXPERIMENTACION TRILINGÜE</b>	0	337.312	
<b>PLAN DE FORMACIÓN DE IDIOMAS</b>	1.000.000	230.000	-77,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>611.943.496</b>	<b>600.602.691</b>	<b>-1,85</b>

## 21.-PLANTILAK

<b>PLANTILLA RPT</b>	<b>2.009</b>	<b>2.013</b>	<b>ALDEA</b>	<b>2009-13</b>
ESTRUCTURA Y APOYO	542	572	30	5,5
HH-LH	8.694	10.011	1.317	<b>15,1</b>
BH	9.070	9.720	650	<b>7,2</b>
BEREZIAK	522	562	40	<b>7,7</b>
APOYO	610	524	-86	<b>-14,1</b>
EPA	613	607	-6	<b>-1,0</b>
ZERBITZUAK	395	578	183	<b>46,3</b>
IRALE-NOLEGA	94	96	2	<b>2,1</b>
GUZTIRA	20.540	22.670	2.130	<b>10,4</b>
<b>PLANTILLA REAL</b>	<b>2009-10</b>	<b>2010-11</b>	<b>ALDEA</b>	<b>ALDEA</b>
<b>HH-LH</b>	<b>9461</b>	<b>9.392</b>	-69	<b>-0,7</b>
PLANTILLA RPT	8.100	8.729	629	<b>7,8</b>
PLA. COMPLEMENTARIA	1.361	663	-698	<b>-51,3</b>
<b>BH</b>	<b>8.831</b>	<b>8.653</b>	-178	<b>-2,0</b>
CUERPO SECUNDARIA	7.276	7.251	-25	<b>-0,3</b>
MAESTROS-RPTE	1.444	1.402	-42	<b>-2,9</b>
PLAN. COMPLEMENTA.	111		-111	<b>-100,0</b>
<b>MAILA GUZTIAK</b>	<b>18.292</b>	<b>18.045</b>	-247	<b>-1,4</b>

<b>MATRIKULAZIOA</b>	<b>2008-9</b>	<b>2009-10</b>	<b>2010-11</b>	<b>2011-12</b>	<b>2012-13</b>	<b>2009-13</b>
HH-LH-HB	101.372	104.516	108.204	111.356	112.142	<b>10,6</b>
DBH-HB(DBH)	30.913	31.457	32.182	33.330	34.244	<b>10,8</b>
BATX.	14.982	15.182	15.080	15.128	15.410	<b>2,9</b>
LH-ZG	13.776	13.531	16.500	17.200	19.343	<b>40,4</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>161.043</b>	<b>164.686</b>	<b>171.966</b>	<b>177.014</b>	<b>181.139</b>	<b>12,5</b>

## 22.-RATIOAREN BILAKAERA

<b>IKASLEAK GELAKO</b>	<b>2011-12</b>	<b>2012-13</b>
<b>INFANTIL 2ª CICLO</b>	18,2	18,9
<b>PRIMARIA</b>	18,3	19,1
<b>ESO 1</b>	20	21,1
<b>ESO 2</b>	16,5	18,3
<b>BACHILLER</b>	31,6	33,6

## 4.2.NAFARROA

HAZKUNDEA	2009	2010	2011	2012	2013	2010-13	
Orokorra	4301	4386	4188	3837	3597	-789	
Igoera %		+2	-4,5	-8,4	-6,2	-%18	-26'5
Hezkuntza Saila	644	656	601	563	529	127	
Igoera %		+1'8	-7,7	-6'9	-6	-19,2	-27,8

(Igoerak, aurreko urteko aurrekontuekin alderatuta)

Departamentua	2009	2010	2011	2012	2013	2010-13
<b>GUZTIRA</b>	644.185	656.992	601.067	563.530	529.718	<b>-%19'27</b>
<i>Pisua</i>	%14'97	%14'97	%14'35	%14'68	%14'72	- %2
<i>BPG 1</i>	%3,64	%3'66	%3'25	%3'10		- %0,56

Aurrekontuak	2009	2010	2011	2012
<i>Onartua</i>	644.185	656.992	601.067	563.530
<i>Burutua</i>	591.455	595.636	570.671	
<i>Burutua % (1)</i>	%92	%92	%94	

Ikaslekiko gastua	2009	2010	2011	2012	2009-12	%
Hezkuntza Saila	644.185	656.992	601.067	563.530	-93.462	-14,22
Ikasle kopurua	92.253	94.879	97.022	101.147	+ 8.894	+ 9,64
Gastua ikaslekiko		6269		4945	-1324	21,11

KAPITULUAK	2010	2012	2013	2010-13	%
Langile gastuak	377.233	349.388	322.797	-54.426	-%14,4
Funtzionamendu-gastuak	37.708	35436	34.312	2272	-%9
Transferentzia arruntak	213.934	201.250	193.166	20768	-%9,7
Inbertsio errealak	31.001	10.121			
Kapital-transferentziak	21.505	5.210	8.742		
<b>GUZTIRA</b>	<b>656.992</b>	<b>601507</b>	<b>563.530</b>		<b>-%14´3</b>

KAPITULUAK	2010	2012	2013
Langile gastuak	%57,41	%58,08	%60,9
Funtzionamendu-gastuak	%5,73	%5,89	%6,1
Finantza gastuak			
Transferentzia arruntak	%32,56	%33,45	%34,3
Inbertsio errealak	%4,71	%1,68	%0
Kapital-transferentziak	%3,27	%0,86	%1,5
Finatza aktiboak		%0,01	
<b>GUZTIRA</b>	<b>656.992</b>	<b>601507</b>	<b>563.530</b>

Pertsonal-Gastuak	2010	2012	2013	2010-13	
Funtzionarioen ordainsariak	261.742	206.853	198,767	-54.889	-%21
Ordezkapenatarako kopurua	12.104	10.949	8.125	-3979	-%32,8
<b>GUZTIRA</b>	<b>377.233</b>	<b>349.388</b>	<b>322.797</b>	<b>-54.436</b>	<b>-%14´4</b>
Pisua	%57,41	%61	%60		

Plantilaren garapena (PUB)	2009-10	2010-11	2011-12	2009-12	%
Haur Hezkuntza	965	874	896	-69	-7,1
Lehen Hezkuntza	2256	2289	2213	-43	-1,9
Haur eta Lehen hezkuntza	586	609	606	20	3,4
Lehen Hezkuntza eta DBH	39	39	39	=	=
DBH eta Batxilergoa	2300	2259	2275	-25	-1,1
Lanbide Heziketa	683	617	539	-144	-21
LanbideH./Batxilergo/DBH	43	41	44	1	
Beste aukerak	338	386	459	121	35,8
Behar berezi espezifikoak	74	99	100	26	35,1
Arte Eskolak	87	90	88	1	
Musika eta dantza	779	842	817	38	4,9
Hizkuntza Eskolak	81	82	84	3	3,7
Helduen irakaskuntza	111	113	100	-13	-11,7
<b>GUZTIRA</b>	<b>7929</b>	<b>8.411</b>	<b>8260</b>	<b>331</b>	<b>4,1</b>

Matrikula	2009-10		2010-11		2011-12		2009-12	
<b>Publikoa</b>	61.942	%63,8	63.409	%64,0	64.924	%64,2	2.982	<b>%4,8</b>
<b>Itunpekoa</b>	35.080	%36,1	35.644	%36	36.223	%35,8	1.143	<b>%3,2</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>97.022</b>		<b>99.053</b>		<b>101.147</b>		4.125	<b>%4'2</b>

Inbertsioak	2010	2012	2013	2012-13	%
<b>Obrak, konponketak, hornitzea</b>	34913	17617	16198	<b>-18715</b>	<b>-47,4</b>

Funtzionamendu-gastuak	2010	2012	2013	2012-13	%
	7.532	5.811	5811	1721	-22,8

<b>Diru laguntzak</b>	<b>2010</b>	<b>2012</b>	<b>2013</b>	<b>2010-13</b>	<b>%</b>
Ertainak eta goiko ikasketak	3.629	3.629	=	=	
Testu liburuak	3.262	1.943	=	-1319	-40,4
Atzerriko Hizkuntzak hobetzeKO	145	499	450	305	210,3
Atzerriko Hizkuntzak irakasleentzat	50	178	82	32	64
Hizkuntzak 1 eta 2 . hezkuntza	200	223	223	23	11,5
Diru laguntzak atzerrikoentzat	174	276	276	102	58,6
Behar Bereziak	268	251	251	-17	-6,3
<b>GUZTIRA</b>	<b>7.603</b>	<b>6.999</b>	<b>6.578</b>	<b>-1025</b>	<b>-13,5</b>
<b>Zerbitzuak</b>	<b>2010</b>	<b>2012</b>	<b>2013</b>	<b>2010-13</b>	<b>%</b>
<i>Jantokiak</i>	3068	3575	=	507	16,5
<i>Garraio</i>	13220	14248	=	1,27	7,8

<b>PRESTAKUNTZA</b>	<b>2010</b>	<b>2012</b>	<b>2013</b>	<b>2010-13</b>	<b>%</b>
Euskara irakasleentzat	40.000	22.268	15.200	-17.732	-44,3
Atzerritarren hizkuntza	197.895	178.400	82.000	-115.000	-58,1
Urrutiko formazioa	210.000	140.000	85.000	-125.000	-59,2
CAP	143.863	127.000	92.000	-51.863	-36
Prestakuntza jarduerak	390.000	.217.800	217.000	-173.000	-44,3
Modulo SAP		25.000	25.000	25.000	100
<b>GUZTIRA</b>	<b>981.758</b>	<b>710.468</b>	<b>516.200</b>	<b>465.558</b>	<b>-47,4</b>

<b>EUSKARABIDEA</b>	<b>2010</b>	<b>2012</b>	<b>2013</b>	<b>2012-13</b>	<b>2009-13</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.191.002</b>	<b>2.318.934</b>	<b>2.193.984</b>	<b>-997.018</b>	<b>-31,2</b>

<b>0-3 ZIKLOA ( Landa eskol.)</b>	<b>2010</b>	<b>2012</b>	<b>2013</b>	<b>2010-13</b>	<b>%</b>
Arreta goiztiarra	8.700	10	10	8.690	
Langileen soldata		39.561	182.880	+182.880	
Udalekiko itunak	8.689.895	8.411.708	=	-278.187	-3,2
Ekipamendua	976.850			-976.850	-100
<b>GUZTIRA</b>	<b>9.675.445</b>	<b>8.451.281</b>	<b>8.594.618</b>	<b>1.080.827</b>	<b>-12,65</b>

<b>UNIBERTSITATEA</b>	<b>2010</b>	<b>2012</b>	<b>2013</b>	<b>2010-13</b>	<b>%</b>
Kampusak	54.125.520	59.000.000	52.430.519	1.695.001	-3,1
UNED	2.000.000	1.843.090	=	156910	-7
Erasmus/Seneca	155.000				
Formakuntza eta I+D	1.975.000	2.129.790	1.810.000	165.000	-8,3
MECeko ituna	<b>550.000</b>				
Patrimonio eta arte	100.000				
Iruñeko kanpusa-Finantz.	1.380.000				
Tuterako kanpusa	<b>1.288.750</b>				
ikastetxe berriak ( OPUS)		<b>1.100.000</b>			
<b>GUZTIRA</b>	<b>62.168.887</b>	<b>63.301.436</b>	<b>57.797.891</b>	<b>4.370.996</b>	<b>-7</b>

## ITUNPEKO IRAKASKUNTZA

	2010	2012	2013	2010-13	%
<b>Haur Hezkuntza 2. zikloa</b>	19.044.381	18.451.756	17.451.756	1.592.625	<b>-8,3</b>
<b>Lehen Hezkuntza</b>	40.398.711	38.941.798	40.476.753	78.042	<b>0,2</b>
<b>DBH 1. zikloa</b>	19.655.046	16.883.300	14.883.300	-4.771.746	<b>-24,3</b>
<b>DBH 2. Zikloa</b>	17.363.588	18.409.156	17.509.156	145.568	<b>0,8</b>
<b>Batxilergoa</b>	10.619.578	9.621.100	9.546.513	-1.073.065	<b>-10,1</b>
<b>LH-Erdi mailako zikloak.</b>	4.551.042	4.163.055	5.645.349	1.094.307	<b>24</b>
<b>LH-Goiko zikloak</b>	2.800.886	2.562.104	2.862.104	61218	<b>2,2</b>
<b>Salesiarrekin ituna</b>	50.000	14.784	49.000	1000	<b>-2</b>
<b>Behar Espezifikoak</b>	3.859.085	3.865.367	=	6282	<b>0,16</b>
<b>Behar Bereziak</b>	4.518.613	4.163.055	5.645.349	1.126.736	<b>24,9</b>
<b>Inmigrazioa</b>	698.165	710.733	=	12568	<b>1,8</b>
<b>Ilundain, Etxabakoiz</b>	1.011.513	925.279	1.025.279	13776	<b>0,7</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>124.570.608</b>	<b>118.681.823</b>	<b>118.958.701</b>	<b>-5.621.907</b>	<b>-4,5</b>